



Nafarroako 0-3 Zikloko ikastetxe publikoetan lan egiten duten irakasleek oso baldintza ezberdinak dituzte: batzuk udal funtzionarioak dira edo behin betiko kontratatu laboralak, beste batzuek behin-behineko kontratua dute eta beste batzuk ez dira udalen langileak baizik eta enpresa batekoak edo kooperatiba baten partaideak. Ondorioz, lan egoera bakoitzaren aurrean, ordutegia, egutegia edota soldatak, batzuetan onak eta besteetan txarrak dira. Udalak ikastetxeen kudeaketa zuzena eramaten duen zentroetan lan baldintzak hobekiak dira, kudeaketa zuzena ez denean baino, Nafar Gobernuak ematen duen dirulaguntza udal batzuek osatzen baitute. Langileek, logikoa den bezala, eskaintza hobereak bilatzen dituzte eta horrek mugikortasun handia dakar zenbait ikastetxetan eta zailtasunak daude taldeak osatzeko eta proiektuei finkotasuna emateko.

STEE-EILASen pentsatzen dugu langile guztiek lan baldintza egokiak eta berdinak izan behar dituztela eta hori lortzeko Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 0-3ko irakasleen kudeaketa zuzena eraman behar duela, hau da irtenbide bakarra.

## Kudeaketa zuzenerako proposamenak

- Kidegoa sortu eta langile finkoak, funtzionario eta kontratatu laboralak, zuzen sartzeara.
- Lanpostuen eskaintza publiko zabala, behin-behineko lanpostuak finko bihurtzeko.
- Behin-behineko langileen antzintasuna kontuan hartzea LEPerako eta kontratazioetarako.
- Lekualdatze lehiaketarako aukera izatea.
- Lanaldi murrizketa 55urteko gorakoentzat, eta erretiro hartzeko aukera 60urtekoentzat.
- Behar den titulazioa izanez gero beste kidegoetara sartzeko aukera arautzea eta antzintasuna kontuan hartzea.
- Ordutegia eta egutegia adostu, ikastetxekoak eta langileenak derrigorrez berdinak izan gabe.
- Derrigorrezko prestakuntzaz gain, baimenak eta laguntzak eskaini prestakuntzarako.

---

<b>ARABA:</b> Fuente de los Patos 1-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-Txiki, 30-34 atzealdea.	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
<b>NAFARROA:</b> Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

---